

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Zai at Devo city.
Klak!son.
Autoekoizpena.
Iraupena: 33'07".
5 euro.

Nortasuna eta berezko giro iluna

EZUSTE ATSEGINA izan da Antzuola eta Urretxu-Zumarragako taldea azalera berriro irtetea eta disko interesgarria kaleratzea. Danbaka musika lehiaketan ezagutu genituen eta orduan erakutsi zuten estilo propioa zutela. Orain, nortasunari eutsiz, are eta giro ilunago eta gogorragoak lantzen dituzte. Baxu jotzailea aldatu eta disko hau beraien kabuz grabatu dute. Kantek talde asko ekar ditzakete gogora, baina era berean zaila da inorekin pareka-

tzea. Nabarmena da teklatuak taldean duen pisua eta The Doors-ekin zuten antzekotasuna arinduz joan da; Itoiz ere ez dago urrun, baina pop-rocketik abiatuta psikodelia, rock-and-rolla, post-rocka, progresiboa eta jazz ere lantzen dituzte. Iruditeriaz betetako hitzak euskaraz abesten dituzte nagusiki, baina bada gaztelaniazko eta ingelesezko pasarterik ere.

www.myspace.com/klakson5

Klak!son

«Estilo askotatik edan dugun musikariak gara, eta kanten konposizioa denon artean egiten dugu»

Iraganean zenuten The Door- sen kutsu handia arindu da, nahiz eta *Zai at Devo City* kantak talde haren arima duen.

Iongu teklistaren talde kuttuna da The Doors eta hori erraz antzeman daiteke teklatura jotzeko duen eran. Gure hastapenetan pisu handia izan zuen Doorsek eta *Zai At Devo City*-ren bukaera Doorsi eginiko omenaldia da.

Pop-rockari freskotasan handia ematen diozue, estilo eta giro asko batuz. Non kokatzen zarete?

Musika estilo askotatik edan duten musikariak gara, eta kanten konposizioa denon artean egiten dugu. Pop-rocka erro bezala hartuta post-rocka edota psikodelia moduko estiloak lantzen saiatzen gara.

Non irudikatzen duzue Devo City?

Kanta oso iluna eta aldi berean irekia da. Hiria pertsona edo gizartearen metafora bezala ikusita degra-



dazio morala eta baloreen eza irudikatzen ditu.

Jon Pinillos baxu jotzaile ohiaren papera oso garrantzitsua izan al da?

Bere ekarpena handia izan da disko honetan. Diskoaren diseinua eta hitzetako asko bereak dira.

la disko osoa lokalean grabatu duzue. Lortu duzue buruan zenuten emaitza?

Hasieran genuen helburua bete dugu

ezbairik gabe. Oso gustura eta liberatuta sentitzen gara, nahiz eta beti dagoen aldatuko zenukeen zerbait.

Hitzak oso irekiak dira, eta nolabait Itoizenak ekarri dizkirate gogora. Itoizekin badituzue gauza gehiago komunean, ezta?

Itoitz guretzat talde euskaldun erreferentzialetako bat da. Itoizekin izan ditzakegun parekotasunak dira, beti ere distantziak gordez, melodiari garrantzia handia ematea, hitz irekiak eta abstraktuak izatea, abeslariaren ahotsa...

Pop-rockaz eta progresiboaz gain, badira jazz, indie eta post-rock ukitu nabarmenak ere. Ez diozue inolako estilori aterik ixten?

Arri bateriaren ekarpenarekin erritmo mota asko jotzeko gai gara; erritmo asko bai, baina Klak!son estilo propioa jorratuz. ■

